

ESP 2024-020542

TXOSTENA

BILBOKO HIRIKO GOBERNU-BATZORDEA

Bilbao Metropoli 30 Elkarteari dirulaguntza izendun bat emateari buruzko espedientea egin da, "The Bay Urban Visioning Awards" sariak antolatzen laguntzeko. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako txosten hau egiten da:

TXOSTENA

Bilbao Metropoli 30 elkarteak Bilboko Udalari dirulaguntza bat eskatu dio urriaren 8tik 10era, Bilbon, egin diren "The Bay Urban Visioning Awards" sariak antolatzen laguntzeko. Hiri-prospektibari eskainitako proiektu bat da, kapital sozialean, konfiantzan, koordinazioan eta erakunde publiko, pribatu eta sozialen arteko lankidetzak eta koordinazioan oinarritutako hiri-ekimen sortzaile, berritzaile eta eskalagarriak aitortu eta ikusarazi nahi dituenak. Azken batean, hiriko pentsamendu estrategikorako ezagutzak trukatzeko sare bat da.

Aipatutako sariak bi urtean behin emango dira eta lehenengo edizioa 2024an izango da, egungo hiri-erronka larrienei irtenbide aitzindariak emateko, mundu osoko hirien garapenean inplikaturik dauden pertsona guztiak animatzeko eta inspiratzeko potentziala duten estrategiak nabarmenduz.

Bilboko Udalak Bilbao Metropoli 30 Erakundeak sustatzen dituen helburuak sustatu nahi ditu, bultzatzen dituen kultur jardueren artean dagoelako. Horregatik, Elkarteari kide da, eta ordezkariak ditu bai Batzar Nagusian (Alkate Jauna) bai Zuzendaritza Batzordean (Hiri Plangintza, Proiektu Estrategikoak eta Espazio Publikoa eta Mugikortasuna eta Jasangarritasuna arloetako zinegotziak). Erakunde horrekiko lankidetzak etengabea da interes komuneko proiektuen garapenean.

Aplikatu beharreko araudia hurrengo testuetan dago jasota:

- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

KULTURA ETA GOBERNANTZA SAILA
ÁREA DE CULTURA Y GOBERNANZA

Azaldutakoaren ondorioz, Kultura eta Gobernantza Sailak Aurrekontuko Zuzendaritzari 30.000 euroko kreditu-gehigarria tramitatzea eskatu zion, Bilbao Metropoli 30 Elkarteari aipatutako dirulaguntza izenduna emateko “The Bay Urban Awards” sariak antolatzen laguntzeko. Eskaera horretan, dirulaguntza finantzatzeko beharrezkoa den kreditua dago jasota. Kreditu hori APG hauetako kredituen erabilgarritik kenduko litzateke:

ÁREA	PROYECTO DE GASTO	APLICACIÓN DE GASTO	DESCRIPCIÓN	IMPORTE
CULTURA Y GOBERNANZA	2013/00024-2024	11000 91210 2271200	APOYO AL GOBIERNO MUNICIPAL. SERVICIOS INFORMÁTICOS	5.000,00
	2020/00194-2024	11000 91210 2271200	APOYO AL GOBIERNO MUNICIPAL. SERVICIOS INFORMÁTICOS	10.000,00
	2018/00385-2024	11000 91210 2273200	APOYO AL GOBIERNO MUNICIPAL. SECRETARÍA TÉCNICA Y APOYO ORGANIZATIVO	8.000,00
	2006/00246-2024	11000 91210 2270700	APOYO AL GOBIERNO MUNICIPAL. ESTUDIOS Y TRABAJOS TÉCNICOS	7.000,00
TOTAL				30.000,00

2024ko apirilaren 10ean Alkatetzako Zerbitzu Orokorretako Zuzendariordetzak Alkateari bideratutako Txostena egin zuen, aipatutako kreditu gehigarria Bilkuran onartzeko eskakizunarekin.

2024ko maiatzaren 30an egindako Ohiko Osoko Bilkuran Bilbao Metropoli 30 Elkarteari dirulaguntza izenduna emateko 30.000 euroko kreditu gehigarria onartu zen, “The Bay Urban Awards” sariak antolatzen laguntzeko. Espedientearen zenbakia 2024-022325 izan zen eta honako kredituaren esparrua egokitu zitzaion: “Hiri-plangintza. Hiri-berrikuntzaren sustapena”. Onarpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikatu zen 2024ko ekainaren 10ean. 15 egun balioduneko epean publikoaren aurrean egon zen eta aipatutako epe horretan publikoak ez zituen inolako alegaziorik egin.

Diruz lagundutako jarduera gauzatu ondoren, elkarteak aurkeztutako fakturen zerrendatik eta fakturen zenbatekotik ondorioztatzen da programaren gastu guztiak 29.996,81 eurokoak izan direla. Beraz, azkenik, Bilbao Metropolitarra Biziberritzeko Elkarteari (Bilbao Metrópoli 30) emango zaion dirulaguntza izenduna 29.996,81 eurokoa izango da.

Gainera espedientearen hurrengo dokumentazioa dago:

- Bilbao Metropoli 30 Erakundeak aurkeztutako jardueraren memoria eta programa eta diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
- Bilbao Metrópoli 30ek aurkeztutako fakturen zerrenda.
- Bilbao Metropoli 30 Elkartearen estatutuak eta eratze-eskiriturak.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren ordainketa betebeharrak bete direla frogatzen dituzten ziurtagiriak.

KULTURA ETA GOBERNANTZA SAILA
ÁREA DE CULTURA Y GOBERNANZA

Kontuan hartuta Bilbao Metropoli 30ak Bilbo Metropolitarrak biziberritzeko erakundea dela eta horretarako bere helburuetako bat sustapen- eta azterketa-ekintzak egitea dela, hala nola "The Bay Urban Visioning Awards" sariak, truke-plataforma bat eta proiektu eta ekimen hiritar arrakastatsuen konektore eta erakusleirako bat, eta kontuan hartuta Udalaren asmoa dela horrelako ekitaldiak babestea, interes publiko, sozial eta kulturaleko arrazoiek justifikatzen dute zuzeneko dirulaguntza ematea.

Azaldutakoaren ondorioz, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 175. artikulua Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127.1.g) artikuluari dagokionez aplikatuz, honakoa aurkeztu zaio Tokiko Gobernu Batzarrari, onar dezan:

ERABAKI-PROIEKTUA

LEHENENGOA.- Bilbao Metropolitarrak Birbizteko Elkarteak (Bilbao Metropoli 30) **29.996,81 euroko** dirulaguntza izenduna ematea, "The Bay Urban Visioning Awards" sariak antolatzen laguntzeko. Sariaketa hori Bilbon egin da, 2024ko urriaren 8tik 10era bitartean, Bilboko Udalari igorritako jardueraren memoriarekin, programarekin eta diru-sarreraren eta gastuen balantzearekin bat etorritik. Zenbateko hori Kultura eta Gobernantza Sailaren 2024-11000-91210-4819970 partidaren eta 2024/00442 THE BAY AWARDS gastu-proiektuan egindako kreditu-erreserbaren kontura emango da.

BIGARRENA.- Ekarpene hori bateragarria izango da helburu berarekin ematen diren beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek ematen dituen administrazioa edo erakunde publiko edo pribatua, Estatukoa, Europar Batasuneko edo nazioartekoa izanda ere. Hala ere, laguntzen zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan diruz lagundutako ekintzaren kostua baino, ez bera bakarrik, ez beste laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batuta; handiagoa bada, dirua dagokion neurrian itzuli beharko da. Onuradunak, helburu horretarako beste dirulaguntza batzuk jasotzen baditu, jakinarazi egin beharko du.

HIRUGARRENA.- ORDAINKETA. Zenbateko hori uneko ekitaldia amaitu baino lehen ordainduko da.

LAUGARRENA.- JUSTIFIKAZIO-KONTUA. Bilbao Metropoli 30 Bilbao Metropolitarrak Birbizteko Elkarteak 2025eko otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko du ebazpen honen bidez diruz lagundutako jarduerak justifikatzeko kontua. Kontuak honako informazio hau jasoko du:

- Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioarekin, diru-zenbatekoarekin, jaulkipen-datarekin eta, hala badagokio, ordainketa-datarekin.

KULTURA ETA GOBERNANTZA SAILA
ÁREA DE CULTURA Y GOBERNANZA

Dirulaguntza justifikatzeko, entitate onuradunak dokumentazioa paperean eta euskarri digitalean aurkeztuko du.

Bilboko Udalak fakturak –edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak– egiaztatuko ditu, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeko dokumentazioa eskatu ahal izango du.

Gastuen zerrendak gastu guztiak jasoko ditu, eta entitate onuradunak jatorrizko fakturak –edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak– aurkeztu beharko ditu, diruz lagundutako programaren gutxieneko aurrekontura iristen direnak (29.996,81euro).

Zeharkako kostuak: beren beregi eskatu ezean, ez da inolako ziurtagiririk aurkeztu beharko.

BOSGARRENA.- DIRULAGUNTZA ITZULTZEA. Entitate onuradunak dirulaguntza osoa edo haren zati bat itzuli beharko du Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako kasuetan.

SEIGARRENA.- Ebazpen hau entitate onuradunari jakinaraztea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bilbon, 2024ko urriaren 23an.

ALKATETZAKO ZERBITZU OROKORRETAKO
ZUZENDARIORDEA
LA SUBDIRECTORA DE SERVICIOS GENERALES DE
ALCALDÍA

OE/VºBº
KULTURA ETA GOBERNANTZA SAILEKO ZINEGOTZI
ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DEL ÁREA DE CULTURA Y
GOBERNANZA

INFORME

JUNTA DE GOBIERNO DE LA VILLA

Expediente relativo a la concesión de una subvención nominativa a la Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano - Bilbao Metròpoli 30 con destino a colaborar en la organización de los Premios *The Bay Urban Visioning Awards*, de conformidad con lo establecido en el artículo 65 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se emite el siguiente

INFORME

La Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano - Bilbao Metròpoli 30, ha solicitado del Ayuntamiento de Bilbao la concesión de una ayuda para la organización de los Premios *The Bay Urban Visioning Awards*, que se han celebrado del 8 al 10 de octubre de 2024 en Bilbao. Se trata de un proyecto dedicado a la prospectiva urbana, con el que se quiere reconocer y visibilizar iniciativas urbanas creativas, innovadoras y escalables, basadas en el capital social, la confianza, la coordinación y la colaboración entre entes públicos, privados y sociales. En definitiva, constituye una red de intercambio de conocimientos para el pensamiento estratégico urbano.

Los premios *The Bay Urban Awards* se otorgarán cada dos años, siendo la 1ª edición en 2024, como reconocimiento de soluciones pioneras a los retos urbanos más acuciantes de la actualidad en las que se pongan de relieve estrategias con potencial para animar e inspirar a todas las personas implicadas en el desarrollo de las ciudades en todo el mundo.

En este contexto, el Ayuntamiento de Bilbao, dentro de las actividades culturales que promociona, está interesado en fomentar los fines que promueve Bilbao Metròpoli 30, motivo por el que forma parte de la Asociación contando con representantes tanto en la Asamblea General (el Sr. Alcalde) como en la Junta Directiva (los concejales de las áreas de Planificación Urbana, Proyectos Estratégicos y Espacio Público y de Movilidad y Sostenibilidad), considerando adecuada su participación en la organización de dichos premios.

La normativa que resulta de aplicación se halla esencialmente contenida en:

- Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

KULTURA ETA GOBERNANTZA SAILA
ÁREA DE CULTURA Y GOBERNANZA

En virtud de lo expuesto, el Área de cultura y Gobernanza solicitó a la Dirección de Presupuestos la tramitación de un crédito adicional de 30.000 euros para la concesión de la mencionada subvención nominativa a la Asociación Bilbao Metròpoli 30 con el fin de colaborar en la organización de la celebración de los premios *The Bay Urban Awards*. En dicha solicitud se recoge que el crédito necesario para financiar la subvención se detraería del disponible en la siguientes APGs:

ÁREA	PROYECTO DE GASTO	APLICACIÓN DE GASTO	DESCRIPCIÓN	IMPORTE
CULTURA Y GOBERNANZA	2013/00024-2024	11000 91210 2271200	APOYO AL GOBIERNO MUNICIPAL. SERVICIOS INFORMÁTICOS	5.000,00
	2020/00194-2024	11000 91210 2271200	APOYO AL GOBIERNO MUNICIPAL. SERVICIOS INFORMÁTICOS	10.000,00
	2018/00385-2024	11000 91210 2273200	APOYO AL GOBIERNO MUNICIPAL. SECRETARÍA TÉCNICA Y APOYO ORGANIZATIVO	8.000,00
	2006/00246-2024	11000 91210 2270700	APOYO AL GOBIERNO MUNICIPAL. ESTUDIOS Y TRABAJOS TÉCNICOS	7.000,00
TOTAL				30.000,00

En fecha 10 de abril de 2024 la Subdirección de Servicios Generales de Alcaldía elaboró un Informe dirigido al Alcalde solicitando para la tramitación del correspondiente crédito adicional, su aprobación en el Pleno.

En sesión ordinaria del Pleno celebrada el 30 de mayo de 2024 se aprobó el crédito adicional para conceder la subvención nominativa a la Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano, Bilbao Metròpoli 30, con destino a la organización del proyecto *The Bay Awards* por el importe expuesto de 30.000 euros, con número de expediente 2024-022325 y asignándose al ámbito/línea de subvención correspondiente a “Planificación Urbana. Fomento de la regeneración urbana”. Esta aprobación fue publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia del 10 de junio de 2024. El plazo de 15 días hábiles de exposición al público del expediente ha transcurrido sin que se hayan presentado alegaciones.

Una vez ejecutada la actividad subvencionada, de la relación de facturas aportada por la asociación y del importe de las mismas, se desprende que la totalidad de los gastos del programa ha ascendido a la cantidad de 29.996,81 euros por lo que, finalmente, el importe total de la subvención nominativa que se va a conceder a la Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano, Bilbao Metròpoli 30 es de dicho importe, es decir, 29.996,81 euros.

Cabe mencionar asimismo que en el expediente también constan:

- La Memoria y el Programa de la actividad realizada y el balance ingresos y gastos aportados por Bilbao Metròpoli 30.
- La relación de facturas aportada por Bilbao Metròpoli 30.
- Estatutos y escrituras de constitución de la Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano, Bilbao Metròpoli 30.

KULTURA ETA GOBERNANTZA SAILA
ÁREA DE CULTURA Y GOBERNANZA

- Así como el Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias y el Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones de pago de la Seguridad Social.

Considerando que la Asociación Bilbao Metròpoli 30 es una asociación que tiene entre sus fines la realización de acciones de promoción y estudio, encaminadas hacia la revitalización del Bilbao Metropolitano, como es la celebración de los premios *The Bay Urban Visioning Awards*, una plataforma de intercambios y un conector y escaparate de proyectos e iniciativas urbanas de éxito, y que es voluntad del Ayuntamiento apoyar este tipo de eventos, razones de interés público, social y cultural justifican el otorgamiento directo de la subvención.

En vista de lo expuesto, en aplicación del artículo 175 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, en relación con el artículo 127.1. g) de la 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se eleva a la aprobación de la Junta de Gobierno Local el siguiente

PROYECTO DE ACUERDO

PRIMERO.- Conceder una subvención nominativa a la Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano, Bilbao Metròpoli 30 de **29.996,81 euros** con destino a la colaboración en la organización de la celebración de los Premios *The Bay Urban Visioning Awards*, que se han celebrado del 8 al 10 de octubre de 2024 en Bilbao, de conformidad con la memoria de la actividad y el programa y el balance de ingresos y gastos remitidos al Ayuntamiento de Bilbao. Dicha cantidad se concede con cargo a la Reserva de Crédito realizada en la Partida 2024-11000-91210-4819970 y Proyecto de Gasto 2024/00442 THE BAY AWARDS del Área de Cultura y Gobernanza.

SEGUNDO.- La referida aportación será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales. No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada, en cuyo caso daría lugar al reintegro correspondiente. La beneficiaria deberá obligatoriamente comunicar la existencia de otras ayudas recibidas para el mismo fin.

TERCERO.- ABONO. El abono de esa cantidad se producirá antes de la finalización del ejercicio corriente.

CUARTO.- CUENTA JUSTIFICATIVA. La Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano, Bilbao Metròpoli 30 deberá presentar antes del 28 de febrero de 2025 la

KULTURA ETA GOBERNANTZA SAILA
ÁREA DE CULTURA Y GOBERNANZA

cuenta justificativa de la actividad subvencionada mediante la presente resolución. Dicha cuenta contendrá la siguiente información:

- Una relación clasificada de los gastos de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

Para justificar la subvención la entidad beneficiaria entregará la documentación tanto en papel como en soporte digital.

El Ayuntamiento de Bilbao comprobará las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa y, en su caso, podrá exigir la documentación acreditativa del pago.

La relación de los gastos incluirá la totalidad de los mismos, debiéndose aportar por la entidad beneficiaria facturas originales o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa que alcancen el presupuesto mínimo del programa subvencionado, que asciende a 29.996,81 euros.

Para los costes indirectos, salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna.

QUINTO.- REINTEGRO DE LA SUBVENCIÓN. La entidad beneficiaria estará obligada a reintegrar total o parcialmente la subvención en los supuestos previstos en la Ley 38/2003, de 17 noviembre, General de Subvenciones.

SEXTO.- Notifíquese esta Resolución a la entidad beneficiaria en los términos del artículo 40.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Bilbao, a 23 de octubre de 2024.

ALKATETZAKO ZERBITZU OROKORRETAKO
ZUZENDARIORDEA
LA SUBDIRECTORA DE SERVICIOS GENERALES DE
ALCALDÍA

OE/VºBº
KULTURA ETA GOBERNANTZA SAILEKO ZINEGOTZI
ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DEL ÁREA DE CULTURA Y
GOBERNANZA